



6. oinezko ibilbidea  
**Aia**

|                                |          |
|--------------------------------|----------|
| ALTUERA MIN.:                  | 353 m.   |
| ALTUERA MAX.:                  | 551 m.   |
| DESNIBELA: ▼ 211 m. ▲ 202 m.   |          |
| DISTANTZIA:                    | 3,49 km. |
| DENBORA: 1 ordu-1 ordu 30 min. |          |
| ZAILTASUNA:                    | erraza   |

## 6. AIA



## 6. AIA

➤➤ AIAKO PLAZA ~ EZKALUSORO GAINA ~ AIAKO PLAZA



## 🎯 TOPOGIDA

**P. Aparkalekua.** Aiako plazan bertan utziko dugu autoa.

**1. Hasiera-puntua.** Aiako plazan emango diogu hasiera ibilbideari ere. Eliza, jolastokia eta Erroipe pilotaleku estalia daude plaza txiki honetan. Auzokideen elkarteko ate ondoan ere bada iturri bat. Gu errepidean behera abiatuko gara GR arrastoak jarraituz.

**2. Iturria.** Iturria eta aska ikusiko ditugu ezker aldean, eta bertatik GR-20aren arrasto zuri-gorriak jarraituko ditugu, bidera irtetean Arbilleta baserria ezkerrean utziz. Arrastoei segika hesia eta ondoren langa igaroko ditugu Aiarreberri eta Aiarre baserrietara heldu aurretik. Bidea aurrera jarraituz Aiaerrekara hurbilduko gara.

**3. Zubia.** Borda atzean utzita Aiaerrekara heltzean zubia igaro eta eskuinera egiten duen bidea hartuko dugu, beti ere arrastoei segika.

**4. Ezkerrera.** Ezkerreko bidezidorra jarraituko dugu gora eginez. Baso itxian gora irtengo gara arrasto zuri-gorriei jarraik.

**5. Ezkalusoro gaina.** GR arrastoak alde batera utzi eta eskuinera hartuko dugu ia Arteta gainean dagoen argi zutabera heltzeko.

**6. Argi-zutabea.** Hemen Aia auzoaren argazki ezin hobea eskura daiteke. Argi-zutabea eskuinean utziz aurrera jarraituko dugu, hesia azpitik igaroz. Artetako gainean gara ia.

**7. Artadia.** Artetako gainetik behera egiteko belarsoroaren paraleloan eskuinetik artadian doan bidea hartuko dugu, berriro artaditik irtetean ezkerreko bidezidorra jarraituz.

**8. Pista ez.** Hemen ere, eskuinera egin ordez ezker aldetik aurrera zuzen jaitsiko gara.

**9. Behera.** Ezkerrera egin, eskuinera deposituak utziz, eta zigi-zaga behera jaisten den bidezidorra hartuko dugu errepidera irtetzeko.

**10. Zubia.** Zubia igaro eta errepidean Aiaugaldeaundi baserri parean gora egingo dugu.

**11. Pista.** Ezkerrean sartzen den pista hartu, eta metro gutxi barru eskuinera eta gora doan bidezidoretik aterako gara goiko errepidera.

**12. Errepidea.** Errepidera irtetean gora egingo dugu ezkerrera, Aiako plazara itzultzeko.

=1. **Amaiera-puntua.** Aiako plazan gara bueltan.

## GUNE INTERESGARRIAK



EZKALUSORO GAINA

Hemen hainbat lekutara doazen bideak elkartzen dira: Marumendi-Lareora edo Kaxetara doan PR-6 ibilbidea eta Lizarrustira edo Aiara doan GR-20a besteak beste. Ezkalusoroko bordetara hurbiltzeko PR-6aren arrasto zuri horiak jarraitu behar dira, eta 200-300 m-ra berehala dira bistan, atsedean hartzeko aparta den harizti ingurunean. Iparraldean Leizadi, mendebaldean Erroi eta hegoaldean Markesane edo markesaren basoak ikusi ahal izango dira.